

## JAKIN: ARANTZAZUTIK 50 URTE

Joan den maiatzaren 19an “jakindarrak” Arantzazun bildu dira, kasu honetan Jakin euskal aldizkariko Zuzendaritzan lanean jardundakoak. Berrogeiren bat lagun paseak egon dira Gandiaga Topagunean. Zer dela eta, ordea, bilera hau Arantzazun?

Mende-erdia beteko du aurten Jakin-ek, eta urteurren horretako ospakizunei hasiera emateko bildu gara jakindarrok Arantzazun, eta Santutegi hau aukeratu dugu horretarako, gure sortetxea hain zuzen hauxe izan zelako eta 1990a arte nortasun juridikoa ere hemengo izan delako.

### Omenaldi eguna

Sortzaileen ondoren etorri garenok al-

dizkariaren sortzaileei eta Santutegiari me-rezitako esker-aitorpena eta omenaldia eskaini nahi izan dizkiegu. Eta gurekin izan ditugu haiek: Iñaki Bastarrika, Iñaki Bereziartua, Fernando Mendizabal eta Imanol Urbieta. Sorrera unean bakoitzak hartu zuen bere gain egitekoren bat, eta bakoitzarena gogoratu dugu. Tamalez, Bastarrikak ez du izan Estatu Batuetatik etortzerik, legezko zeregin ezin saihestuak suertatu zaizkiolako, baina badakigu Arantzazun egon dela, gogoz eta mezuz.

Santutegiak eta frantziskotarrek, berriz, ordezkari jasoak izan dituzte omen-ekitaldian: Arantzazu Probintziako Aita Nagusia, Joxe Mari Arregi, eta Joan I. Larrea, Santutegiko Bikarioa. Denon artean, oroitarri bat





agerian jarritz hasi da jardunaldia: “JAKIN Arantzazun sortu zen 1956an. Esker onez, Jakin”, dio testuak modu xumean, baina zizelkatuan.

Joxe Azurmendik egin zuen eskaintza: “Arantzazuk beti jakin du Jakin-i nola lagundu: begiak pixka bat itxiz” batzuetan, eta erabakiak hartuz ere bai, halakorik behar izan den bakoitzean. Esku eta bihotz zabalki jokatu dute frantziskotarrek beti, Jakin “erabat gizartearen zerbitzuan jarritako tresna” izan baita, esan zuen Azurmendik.

### Jakin-en historiaurrea

Oroitarría agerian jarrita, aldizkariko Zuzendaritza ezberdinetako lagunarte zabalak aukera izan zuen gero iraganeko zenbait gorabehera laburki gomutatzeke ere, zerbait esan beharra baitzegoen orain berrogeita hamar urteko giroaz, orduko Santutegiaz eta euskaltzaleen munduaz.

Gogoratu ahal izan genituen Arantzazu

eta Erriberriko (Oliteko) frantziskotarren Ikastegietan bizi izandako euskal ardura eta lanak (1950...), etxe-barruko bere aldizkariekin, orduan egindako itzulpen eta liburuekin. Eta garaiko izenak: S. Mitxelena, L. Villasante, K. Iturria, A. Sorarrain, B. Gandiaga, J. M. Garaialde, J. Galarraga, J. A. Astigarraga, J. Iturria, I. Alustiza...

Jakina denez, 1950.eko hamarkada, erlijioasunean bezala arte munduan ere, emankorra izan zen Arantzazun (arkitektura, margolaritza, literatur eta musika sariak, etab.). Ur bizi haietako ekarpen iraunkorra izan da Jakin, urterik zailenak oso-osorik Arantzazun bertan emandakoa, eta gero ere Santutegiaren babesean ibili izan dena.

Jakin aldizkariaren historia frantziskotarren Fraide-Ikastegietako lagunarte euskaltzalean ditu bere sustriak, eta urte haietan frantziskotarrek kaleratu zituzten euskal lanen baratzeke lora da, izan ere Jakin komentu-barruko aldizkarietatik sortu baitzen azkenik, Excelsior, Gure Izarra eta antzekoetatik alegia.

Bileran esan denez, hiru iturburuetak urak bildu ziren errota berera, Jakin-era: Arantzazuko eta Eliz Ikastegietako gazteak, lehenengo; frantziskotar Nagusien gobernu-modu librea eta babesa bigarren, eta Euskaltzaindiarekin Arantzazura bilduta zeuden euskaltzaleak, aldi berean. Hiru molde hauetako gogo eta ahaleginek bideratu zuten Jakin izango zena.

## Omenaldia eta datozen urteak

2005eko urte hau oroimen, omenaldi eta etorkizunerako gogoeta baten urtea izango da. Hiru egiteko ezberdin.

Arantzazuko ekitaldi honetan lau sortzaileei ikur-irudi bana eman zieten sortzaileen ondoko lehen jarraitzaileek, Kepa Enbeitak besteak beste: irudian, bi esku hertsiki elkarri lotuak, lehenaren eta geroaren arteko jarraitasuna erakutsiz eta belaunen arteko konpromiso-gogoaren seinaleztat.

Oroimen eta omenetara osorik mugatu gabe, ordea, geroari fermuki heldu nahi dio Urteurrren honek, eta egiteko diren ospakuntzetarako deia zabaldu zuen Joan Mari Torrealdai-k, hogeita hamar urtetik gora Zuzendaritza eraman duenak.

Ekitaldi ofizialak eta zabalkunde-kanpainak egingo dira, DVD bat argitara emango da, Irrati eta Tebistan emanaldi bereziak eskainiko dira. Zinez, hurrengo 50. urteei oinarri berriak eman nahi zaizkie. Guztia-  
ren berri jakin nahi duenak  
jakin@jakingunea.com  
postara idatz dezake, edo  
www.jakingunea.com  
begiratu, eta urrutizkinak  
ere balio du ahalegin ber-  
ritzaile honetan parte  
hartzeko: 943-218092.

Arantzazu aldizkariko irakurlea ere ongi etorria izango da Jakin-en.

**JOSEBA  
INTXAUSTI**

